

GARAPEN



JASANGARRIRAKO

HELBURUAK LANTZEKO




-UNITATE DIDAKTIKOA-



Sortzaileak:

Ara!Gorputz Kooperatiba



Labore Txingudi Elkarte



BDSKoop Elkarte



Laguntzaileak:



2022.urteko udazkena

AURKIBIDEA

KOKAPENA.....4. orria

- ✓ Aurkezpena.....4. orria
- ✓ Oinarrizko jakintzak.....5. orria
- ✓ Helburuak.....6. orria
- ✓ Metodologia.....7. orria

EDUKIA.....11. orria

- ✓ GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH).....11. orria
 - Dinamikak.....12. orria

- ✓ GAIKAKO BLOKEAK:
 - 5. GJH: EKONOMIA FEMINISTA TRESNA GISA.....19. orria
 - * Sarrera teorikoa.....21. orria
 - * Dinamikak.....21. orria

 - 8. GJH: KOOPERATIBAGINTZA TRESNA GISA.....26. orria
 - * Sarrera teorikoa.....26. orria
 - * Dinamikak.....29. orria

 - 12. GJH: AGROEKOLOGIA TRESNA GISA.....33. orria
 - * Sarrera teorikoa.....33. orria
 - * Dinamikak.....35. orria

- ✓ AZKEN HITZA.....41. orria
- ✓ ERANSKINAK.....42. orria

AURKEZPENA

"Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eskolan" proiektua Bidasoa Koop (BDS Koop) elkarte¹, Labore Txingudi kontsumo elkarte² eta Ara!Gorputz kooperatiba³-ren arteko elkarlanetik abiatzen da. Gure eguneroko jardueran GJH-ak oso presente ditugu eta proiektu honekin aipatu helburuak eskola eremuan jorratzeko erronka hartu dugu.

BDS Koop, Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE), kooperatibagintza eta tokiko garapena sustatzen dituen elkarte da. Bere baitan hainbat eragile daude elkarlanean, besteak beste Labore Txingudi eta Ara!Gorputz Kooperatiba. Dimentsio anitzeko krisiaren aurrean, bizitzak sustengatzeko ESE-aren baloreak dituzten eragileen artean interkooperazioa eta elkarlana partekatzen dira BDS Koop-en, jasangarritasunean eta berdintasunean oinarritzen diren ekonomia eredu alternatiboak sortuz. Zentzu honetan ere, ingurumena errespetatuko duen ekintzailatza arduratsua bultzatzen du.

Labore Txingudi, tokiko kontsumoa, ekoizpena eta elikadura eraldatu nahi dituen irabazi asmo gabeko elkarte da. Bertako eta inguruko ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzen dituen elikadura kontsumo taldea. Ara!Gorputz, osatze feministaren baitan formazioa eskaini eta edukia sortzen duen kooperatiba da. Zehazki, hilerokoaren kultura eta ekonomia feminista dira Ara!Gorputz-en lan ildo nagusiak.

Eragileok elkarlanean, unitate pedagogiko hau osatu dugu gure eguneroko lanaren ardatz diren ESE-a, kooperatibagintza, kontsumo eta ekoizpen arduratsuak eta feminismoa jorratzeko. Honela, 2030. urterako erdietsi nahi diren zenbait helburu bigarren hezkuntzako bigarren zikloko ikasleekin lantzeko baliabideak jaso ditugu.

Nahitaez Garapen Jasangarrirako Helburu guztiak jorratuko baditugu ere (harremanean soilik erdietsi daitezkeelako) bosgarren, zortzigarren eta hamabigarren helburuak izango ditugu lanketa honen ardatz. Helburu hauen lortzeko asmoz, gai bakoitzaren inguruko kokapen teoriko bat proposatuko dugu lehenik eta ondoren, irakasleek erronka nerabeekin lantzeko dinamika sorta bat.

1 <https://www.bdskoop.eus/>

2 <https://laboretxingudi.eus/eu>

3 <https://aragorputz.eus/>

OINARRIZKO JAKINTZAK

Planteatzen ari garen lanketan zehar ikasleek hurrengo jakintza eta gaitasunak bereganatzea aurreikusten da. Hala ere, gazteen bizi ibilbidearen edota klaseko giroaren arabera, ezberdina izango da barneratutako edukia. Edozein modutan, hurrengo puntuetan trebatzea da xedea:

- Eztabaida kolektiboetan parte hartzeko gaitasuna.
- Talde lanean aritzeko gaitasuna.
- Jendaurrean haien iritzia plazaratzeko gaitasuna, bai eta besteen iritziak arretaz entzutekoa.
- Bere egunerokotasuna era kritiko batean irakurtzeko trebetasuna.
- Agenda 2030erako ezarritako erronken beharra ulertzeko gaitasuna.
- Etorkizun hobe batekin amesteko gaitasuna.
- Erronka horien aurrean subjektu aktibo moduan beren burua irakurri eta horren baitan jarduteko gaitasuna.

HELBURUAK

Unitate didaktiko honen xedea irakasleei tresna teoriko eta metodologikoak eskaintzea da. Honela, hezitzaileek GJH-ak ikasleekin lantzeko baliabideak eskura izan ditzazuten. Ikasgeletan burutzea proposatzen ditugun lanketa pedagogikoen helburu orokorrak aldiz, hurrengoak dira:

- ✓ Garapen Jasangarriaren Helburuen beharra ikustaraztea.
- ✓ Garapen Jasangarriaren Helburuen edukietara hurbilpen bat egitea.
 - Genero berdintasunera, ekoizpen eta kontsumo arduratsura eta ekonomiara hurbilpen bat egitea.
 - Etorkizun jasangarri bat nolakoa litzakeen irudikatzea.
 - Etorkizun jasangarri hori nola eraiki pentsatzea.

Atalez atal erdiestea aurreikusten diren helburu zehatzak ondoren aurkezten dira:

- ✓ Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea aurkeztea.
- ✓ Ekonomia, dirua (eta arlo finantzarioa) baino gehiago dela aztertzea.
- ✓ Kapitalismo neoliberalak gure bizitzetan duen eragina ikustaraztea.
- ✓ Feminismoaren oinarriak hurbilpen bat egitea.
- ✓ Eredu kooperatibistara hurbiltzea eta haren balioak indartzea: elkar laguntza, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna.
- ✓ Lan eta enplegu beharren aurrean antolatzen dauden ereduak inplikazioak ulertzea.
- ✓ Enplegu eredu bakoitzaren onura eta arriskuak ulertzea eta etorkizuneko aukeren artean kokatzea.
- ✓ Norberak kontsumitzaile gisa dituen aukera eta ardurez jabetzea.
- ✓ Eredu agroekologikora hurbiltzea eta haren balioak indartzea.

METODOLOGIA

Bloke ezberdinetan banatu ditugu edukien lanketak. Alde batetik, oro har GJH-ak lantzen dituen atala dugu. Hau, hasieran lantzea proposatzen dugu hurrengo lanketak ekimen honen baitan kokatu ahal izateko. Ostean, ekonomia feminista, kooperatibagintza eta kontsumo arduratsua lantzeko baliabideak eskainiko ditugu eta hauek, nahi eran antolatu daitezke talde bakoitzaren behar eta nahiei egokituz.

Prestaketa gomendagarria iruditzen zaigu. Izan ere, erronka potoloa da norberaren bizitza ibilbidea abiapuntu moduan erabiliz, barneratuta ditugun ideiak zalantzan jartzeko bideak irekitzea. Zentzu honetan eta irakasle zaren heinean, lanketa zugandik hastea gomendatzen dugu, eroso sentitzea ezinbestekoa baita. Zure buruarekin gaien inguruko aurre lanketa bat gauzatu izana oso lagungarria izango zaizu.

Hurrengo taulan lanketa honen nondik norako batzuk adieraziko dizkizugu:

- Ze motibaziok eraman zaitu gaia jorratzera? Gaiak ze sentazio eragiten dizu gorputzean? Beldurrik ba al duzu? Zer egin nahi duzu beldur horiekin?
- Ze ikasgaitan landu nahi edo ahal duzu materia hau? Aurreikusi dezakezu zenbat ordu eskainiko dizkiozun? Baduzu beste irakasleen lankidetzarik?
- Ikasleak gaiarekiko zein puntutan daudela esango zenuke?

Denboralizazioa zehaztea zure esku dago. Dena den, lanketak fruituak eman ahal izateko saio bakoitzak gutxienez ordubeteko iraupena izan behar du. Eta ahal den heinean ordu t'erdiko iraupena hobestea gomendatzen dugu. Bestalde, lanketa prozesu moduan planteatzea eraginkorragoa iruditzen zaigu. Honela, hiruhileko batean zehar astean behin ordu t'erdi eskaintzea egokia deritzogu.

Baliabideei dagokionez, ikasgelak edota bestelako espazio zabal eta atseginak izan daitezke lanketetarako aproposak. Dinamikaren arabera bideoak ikusteko baliabideak beharko ditugu baina gehienetan papera, bolaluma, arbela eta klarionak aski izango ditugu. Hala ere, bitarteko zehatzak dinamiken atalean adieraziko ditugu.

Metodologia arreta berezia merezi duen arloa da eta asko zaintzea gomendatzen dugu. Eduki teorikoa mamitua izatea beharrezkoa bada ere, klasean azalpen formal gutxi ematea proposatzen dugu. Dinamika ezberdinen eta azalpen zolien bitartez ikasleek aterako dituzten ondorioak izango dira baliagarriak. Zentzu honetan, maila anitzetan jarriko dugu arreta:

- Norbanakoan. Maiz, lanketak beraien esperientzietatik abiatuko ditugu eta bertara itzuliko gara hainbat gogoetaren ostean.
- Komunitarioan. Harremanetan jarduteko modura hurbilduko gara une batzuetan.
- Makroan. Antolaketa sistema globalak aztertuko ditugu gertaerak elementu isolatu beharrea logika batzuen baitan kokatzen direla ulertzeko.

Honela, erritmo kiribildu batean murgilduko gara prozesuan zehar. Gai berberak hainbat ikuspuntu eta distantzietatik aztertuko ditugu une ezberdinetan. Egun baten ikasitakoa pausaz finkatzeko tarteak izango dugu eta antzeko gai batera hurbiltzen garenean metatutako jakintza batetik abiatuko gara berriz hausnarketara.

Oro har, lanketaren nondik-norakoen azalpenak, talde lan, banakako lan, elkar-jartze eta ondorioak uztartuko ditugu saioetan.

Talde lanak egitea maiz proposatuko dugu eta horregatik hauen inguruko hainbat ohar emango ditugu hasieratik:

- Taldeak gaitasun, pentsamolde eta ospe ezberdinetako kideez osatzea gomendatzen dugu.
- Talde bakoitzean gehienez bost lagun egotea proposatzen dugu.
- Taldean lanean dauden bitartean hauen arteko barne dinamiketan adi egon, bortizkeria egoerak identifikatu eta ekiditeko alde batetik. Baina barne hausnarketak laguntzeko eta bideratzeko ere, beharrezkoa bada.
- Printzipioz, talde lanen iraupena gehienez 15 minutukoa izango da. Denbora hori pasa ostean elkar-jartze bat egingo dugu. Beharrezkotzat jotzen bada iraupena luzatuko dugu baina talde dinamika egokiak sortu dituztela baloratzen badugu soilik.
- Talde-kideen artean hainbat ardura banatzeko eskatuko diegu. Alde batetik, denboraren arduradun bat ezarri beharko dute. Bestalde, apunteak hartzeaz arduratuko den kidea nor izango den ere adostu beharko dute.
- Eta azkenik, elkar-jartzeetan denek zerbait esan beharko dute, eta denen ardura izango da idatzitakoa beraien artean era orekatu batean banatzea.

Ebaluazio-sistema jarraia izatea iruditzen zaigu egokiena. Ikasleek barneratu dutena baloratzeko bidea, parte-hartzea eta dinamiken emaitzak izango dira. Zehazki, saio bakoitzaren amaieran dinamizatuzaileak hurrengo fitxa betez osatu dezake ebaluazioa:

- Eztabaida kolektiboetan parte hartzerik egon al da? Orekatua izan al da parte hartzea?
- Talde lanean aritzeko gai izan dira?
- Jendurrean haien iritzia plazaratzeko gaitasuna, bai eta besteen iritzia arretaz entzuteko gai izan dira?
- Beraien egunerokotasuna era kritiko batean irakurtzeko gai izan al dira?
- Saioan landu den edukia azaltzeko gai direla esango zenuke?
- Etorkizun hobe batekin amesteko gaitasuna adierazi al dute?
- Ikasleek subjektu aktibo moduan irakurtzen al dute beren burua? eta horren baitan jarduteko gaitasunik al dute?


GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

GJH-ak, Nazio Batuen hitzetan “pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat da, bake unibertaria eta justiziarako sarbidea indartzeko asmoa baitauka”. Ekimenak Milurteko Garapen Helburuetan du jatorria baina 2015. urtean ber defintitu ziren hamabost urteko epea ezarriz hauen lorpenerako. Hurrengoak dira 2030. urterako erdiesteak lortu nahi diren xedeak, edo beste era batera esanda 2030 Agenda osatzen duten helburuak⁴:

1. Pobreziaren mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. Gosea amaitzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. Guztiarentzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. Guztiarentzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. Genero-berdintasuna erdiesteak.
6. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiarentzako saneamendua bermatzea.
7. Guztiarentzat energia irisgarria eta ez kutsagarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea.
8. Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta guztiarentzako lan duina sustatzea.
9. Industrian, berrikuntzan eta azpiegiturretan arreta jartzea.
10. Gizarteetan dauden desberdintasunak ezabatzea.
11. Hiri eta komunitate jasangarriak lortzea.
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua sustatzea.
13. Aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea.
15. Lehorretako ekosistemetak bizitzari buruzko planteamenduak abiatzea.
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak eraikitzea.
17. Helburuak lortzeko aliantzari buruzko garrantziaz jabetzea.

4 Iturria: wikipedia

GHJ-ak, abiapuntu ezin hobea dira testuinguruaren irakurketa orokor bat egiteko. Jendarte zein planeta, dimentsio anitzeko krisi bat igarotzen ari da. Planeta egunero suntsitzen duen sistema ekonomiko bat dugulako, zeinak gainera desberdinkeria soziala areagotzen duen. Ikasle zein helduok honen ondorioak pairatzen ditugu, eta aldaketarik egin ezean egungo gazte belaunaldiak beraien gurasoek baina bizi baldintza askoz kaskarragoak izango dituztela aurreikusten da.



Dinamikaren izena: **Kuttun hori**

- **Helburuak:** Jasangarritasun kontzeptura hurbilpena eta hau tratu onarekin erlazionatzea.
- **Iraupena:** 20 min
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta bakarkako lana
- **Bitarteko materiala:** ezer ez

Metodologia:

Ariketaren xedea azaldu ostean, bakarka lan egitera gonbidatuko ditugu ikasleak. Hausnarketa eman ahal izateko, giro erlaxatu bat sortzen saiatuko gara lehenik eta behin. Oinak lurrean ongi bermatuta eta bizkarra zuzen mantenduta jarriko gara, isiltasunean eta ikasleek begiak itxita dituztelarik, norbere arnasan arreta jartzera kilikatuko ditugu gazteak.

Giroa aproposa dela sentitzen dugunean eta oraindik isiltasunean, beraientzat kuttuna den zerbait (arropa, liburu, gailu elektroniko..) burura ekartzeko eskatuko diegu.

Erantzuna pentsatzeko tarte utzi ostean hurrengo galdera bat helaraziko diegu: Aukeratu duzun objektu horrek, zergatik darama horrenbeste denbora zurekin? Berriro ere segundo batzuk utziko ditugu bakarkako hausnarketarako.

Gutxinaka begiak irekitzen eta gorputza mugitzen hasteko irizpideak adieraziko ditugu eta nahi duenari otu zaiona partekatzeko aukera luzatuko diegu.

Ondo zaintzen diren gauzak gehiago irauten dutela ondorioztatuko dugu, eta jasangarritasunaren kontzeptuaren atzean zaintza eta tratu ona daudela azpimarratuko dugu.

Dinamikaren izena: GJH, zer demontre da hori?

- **Helburuak:** “Garapena”, “jasangarria” eta “helburua” kontzeptuak ulertzea
- **Iraupena:** 30 min
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, hiztegiak

Metodologia:

Garapen Jasangarrirako Helburu terminoa ulertzeko potoloegia bihurtzen da, eta ondorioz hitzez hitz aztertuko dugu bere esanahia. Horretarako, talde txikietan jarriko dira ikasleak eta talde bakoitzari kontzeptu baten definizioa lantzeko eskatuko diogu. Honetarako, sarean edo hiztegiatan informazioa bilatu dezakete, baina topatutakoa beraien hitzekin azaltzeko eskatuko diegu.

Honela, talde batzuk “Garapen” terminoaren inguruko lanketa osatuko dute. Beste batzuk “Jasangarri” kontzeptuarena. Eta azkenik besteek “ Helburu” elearena.

Beraien definizioak talde osoaren aurrean azalduko dituzte, eta denen artean beharrezko argibideak landu. Ariketa honetan klase kideek osatutako definizioa izango da egokia, eta ez iturri ofizialetatik eratorritakoa. Honela, beraiengandik hurbilago sentituko dutelako lanketaren afera. Behin hona iritsita, GJH-ak kontzeptu konplexuaren inguruko ulermen aberatsago bat izango dute.

Dinamikaren izena: Alderdi Anitzeko Krisia

- **Helburuak:** GJH-en beharra ikustaraztea eta krisi anitzen testuingurura hurbiltzea
- **Iraupena:** Ordu bat hiru fasetan banaturik. Fase bakoitzak hogeita minutu inguruko iraupena izango du.
- **Pertsona kopurua:** Klase osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** paperak, bolalumak, arbela, klariona

Metodologia:

1. Fasea. Hasiera talde osoa elkarrekin dagoelarik burutuko dugu. 2030 Agenda hainbat krisiri erantzuna emateko sortua izan zela adieraziko dugu eta GJH-en nondik norako orokor batzuk adieraziko ditugu. Talde handian bertan hainbat krisi izendatzera gonbidatuko ditugu

ikasleak. Energia krisia eta finantza krisia aisa azaleratuko dira. Baina pobrezia eta emakumeen kontrako indarkeria ere aipa ditzakegu. Hainbat krisi daudela argi gelditzen denean bigarren fasean murgilduko gara.

2. Fasea. Talde txikietan antolatuko ditugu ikasleak eta krisi ezberdinak izendatzera eta hauen nondik norakoak azaltzera gonbidatuko ditugu.
3. Fasea. Talde bakoitzak aurkezpen bat egingo du ikaskide guztien aurrean eta debaterako zein argudioak osatzeko tarteak irekiko ditugu bitartean.

Saioa borobiltzeko krisi hauen aurrean artikulatzeko beharra sentitzen duten ala ez komentatuko dugu eta xede honi erantzuteko GHJ-ak sortu zirela adieraziko dugu.

Dinamikaren izena: Nola heldu gara honaino?

- **Helburua:** Mundua aldatzeko dugun gaitasuna erakustea.
- **Iraupena:** Ordu t'erdi.
- **Pertsona kopurua:** Klase osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** paperak, bolalumak, “Rosa Parks, Ikasleen greba Erresuma Batuan eta IHS-aren irakurgaiak”, ordenagailuak eta sarera sarbidea.

Metodologia:

Une honetan mundua, gizakia zein planetarekiko gazteek duten pertzepzioa oso negatiboa da. Azkotan, izan dezaketen ezagutza kontrastatutik baino, ingurunetik jasotzen duten informazio, beldur eta presioetan dago ezkortasun honen jatorria. Honen aurrean baliagarria eta beharrezkoa da GJH ezberdinekiko lotura eginez historian zehar egon diren jendarte mugimendu ezberdinak arakatzea. Egiteke dagoen bidea, dagoeneko egitea lortu den bidearen jarraipena delako.

Saio honetan bidegabeak ziren arauen aurkako protestak bideratu edota lorpen esanguratsuak lortu dituzten mugimendu batzuk aztertuko ditugu.

Talde txikietan banatuko ditugu ikasleak eta talde bakoitzari jarraian dagoen testu bat banatuko diogu. Beraien lehen egitekoa testua irakurtzea eta ulertzea izango da.

ROCHDALE

Muturreko pobrezia eta jendarte-injustiziaren testuinguruan, 1844an eratu zen Rochdale-n (Ingalaterrako iparraldeko herri txiki bat), gaur egun kooperatibismo modernoaren amatzat hartzen den kontsumo-kooperatiba. 27 gizonek eta emakume batek libra bat aurreztu zuten urtebetean kooperatiba sortzeko.

XIX. mendeko 40ko hamarkada gosearen hamarkada deitu zen Rochdalen. Herritarrak gosez hiltzen ziren bitartean, lantegietan hamahiru orduko lanaldia lortzeko borrokatzen zen. Enpresek irabaziak handitzen zituzten bitartean, mobilizazioek eta grebek ez zuten lortzen egoera horrekin bukatzea. Lanbaldintza tamalgarriez gain, enpresek langileak behartu egiten zituzten elikagaiak beren ekonomatoetan (dendetan) erostera, elikagaien prezioa kontrolatuz eta muturreko pobrezia egoera larriagotuz. Prezio gehiegikeria edota produktuak egoera txarrean egotea ohikoa zen.

Egoera hori arintzeko asmoz, Rochdaleko aitzindariak 28 libra bildu eta oinarriko elikagaiak erosi zituzten, gero bidezko prezioan saltzeko. Lortutako etekina berrinbertitu egiten zen kooperatibaren eta bazkideen beharrak asetzeko.

Kooperatiba bezala eratu zirenean, balio batzuk ezarri zituzten: elkarrekiko laguntza, auto-erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna.

Eta balio horien babesean sortu ziren kooperatiben printzipioak: sarrera librea eta borondatezkoa, kudeaketa demokratikoa, parte-hartze ekonomikoa, autonomia eta independentzia, hezkuntza, prestakuntza eta informazioa baita kooperatiben arteko lankidetzaren eta komunitatearekiko interesa.

Balore eta printzipio horiek kooperatiba-mugimenduak bere egin zituen, eta gaur egun munduko kooperatiba guztietan daude indarrean (edo, behintzat, hala behar luke).

ROSA PARKS

Rosa Louise McCauley Parks, Rosa Parks gisa ezaguna, emakume estatubatuar beltza eta aktibista bat izan zen. 1950 urtetik Eskubide Zibilen Mugimenduko kide izan zen.

1955ko abenduaren 1ean, 42 urte zituelarik egindako ekintzagatik ezaguna egin zen. Egun horretan bere etxera itzultzeko autobusa hartu zuen Estatu Batuetako Alabama estatuko Montgomery hirian.

Garai horretan autobus publikoak pertsonen arrazaren edo azal kolorearen baitan banaturik zeuden. Aurrean zuriak, atzean beltzak eta erdian txuri zein beltzak, baldin eta zurientzako tokia bermatuta bazegoen. Zurientzako tokia egon ezean, pertsona beltzek altxa eta zuriei utzi behar zieten tokia, legeak hala esaten zuela-

ko. Autobusa bete zenean txoferrak Rosa eta beste hiru mutil beltzei autobusera igo zen mutil txuri bati tokia uzteko agindu zien. Hiru mutilek agindua bete zuten baina Rosak uko egin zion altxa eta tokia uzteari. Ekintza honengatik Rosa kartzelan sartu zuten eta isuna jarri zioten.

Erantzun gisa, Eskubide Zibilen Mugimenduaren buru bihurtuko zen Martin Luther King eta Rosaren lagun Johnnie Carr-ek autobusen aurkako boikot kanpaina hasi zuten. Montgomeryko populazio beltzak uko egin zion autobusetan ibiltzeari. Tokietara iristeko elkarren artean antolatu ziren eta oinez joateari ekin zioten. 382 egunez iraun zuen protesta honek herrialde guztiko pertsona askoren babesa jasotzeaz gain, afera Epaitegi Gorenera heldu eta espazio publikoetako segregazioa konstituzioaren aurkakoa zela ebatzi zuen.

Rosa Parksen ekintza hau Eskubide Zibilen Mugimenduaren eta populazioaren mobilizazioa hauspotu zituen txinparta gisa kontsideratzen da.

Iturria: wikipedia

IKASLEEN GREBA ERRESUMA BATUAN

Zigor fisikoen aurka eta ikastetxeko baldintza txarrak salatzeko Galeseko Lanely herrian hasitako ikasleen grebak Erresuma Batu osoan zehar zabaldu ziren 1911ko irailean zehar.

Irailaren 14ean Eskoziako Dundee hirira greba mugimendua iritsi zen eta protesta jendetsuenari ekin zioten; milaka ikaslek greba hasi zuten zigor fisikoen aurka eta opor gehiago eskatzeko. Eskutan makilak eta harriak hartuta hirian zehar ibili ziren, irekita zeuden eskoletan piketeak antolatuz.

Hiri ezberdinetan ikasleak antolatu eta “zer eta nola” egin erabakitzeko komiteak eta piketeak osatu zituzten. Greba hauetan neska zein mutilek parte hartu zuten. Protesarako modu ezberdinak erabili zituzten tokian toki, baketsuak gehienak, manifestazioak, protesta oihera, lelo eta kantak, latak makilekin kolpatu, haiek jotzeko erabiltzen zituzten larruzko uhalekin eskoletako ateak lotu. Londres hirian burdinazko makilekin irten ziren protestan kalera edota Dublinen irakasleei aza ustelak jaurti zituzten.

Iturria: Argia eta wikipedia

IRUNGO HARRERA SAREA (IHS)

2018. urteko udan, Estatu frantsesera igaro nahian Irunen blokeaturik gelditu ziren migratzaile eta errefuxiatuei erantzun bat emateko osatu zen herritar sarea da. Aurrera ezin egiteak suposatzen zuen egoeraren aurrean pertsona horiek beharrezkoak zituzten oinarritzko baliabideak bilatu eta bermatzeko antolatu ziren. Atsedean hartzeko, mugikorrek kargatzeko, dutxatzeko edota indarrak hartzeko toki bat behar zuten.

Baliabide horiek bilatzearekin batera, bidegabekeria publikoki salatu du IHS-k prentsa-aurreko, idatzi, ekintza eta manifestazio ezberdinen bidez. Egun, erakundeek Irunen migratzaile eta errefuxiatuei harrera egiteko jarri dituzten baliabideak, herritarrek bideratu dituzten eskari, ekintza eta protesten ondorioz lortu dira.

Oraindik ere pertsona guztiek muga libreki gurutzatzeko aukera ez dutenez, IHSak lanean jarraitzen du, migratzeko eskubidea ukatzen zaien eta Iruna iristen diren pertsonen laguntzeko eta egoera bera salatzeko.

Irakurgaietan jorrotzen diren gatazkak ulertu direla bermatzeko beste ikaskideei irakurritakoaren aurkezpen txiki bat egingo diete taldeek, eta zalantzarik badago komentatu egingo dira.

Ondoren, talde bakoitzak beste afera bat aukeratu eta honen inguruan egondako gizarte mugimendu baten inguruko informazioa bilatu beharko dute. Berrito ere, ikertutakoa talde osoaren aurrean aurkeztera gonbidatuko ditugu.

Amaitzeko, gaur egun ditugun eskubideak hainbat eta hainbat lagunek irekitako bideen emaitza direla oroitaraziko dugu. Eta igarotzen ari garen testuinguruan ere eragin gaitasuna dugula azpimarratu.

Dinamikaren izena: Krisiei aurre egiten

- **Helburua:** GJH-ak igarotzen ari garen krisiekin erlazionatzea eta hauen aurrean zer egin planteatzea.
- **Iraupena:** Ordu bat hiru fasetan banaturik. Fase bakoitzak hogeita minutu inguruko iraupena izango du.
- **Pertsona kopuru** Klase osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** paperak, bolaluma, “GJH-en zerrenda” fitxa, arbela, klariona .

Metodologia:

1. Fasea. “*Alderdi anitzeko krisia*” eta “*Nola heldu gara honaino?*” dinamiketako ideia nagusien berrikuspen azkar bat egingo dugu lehenik eta behin: Krisi ezberdinak zeharkatzen gaudela eta hauei irtenbidea eskaintzeko gizarte antolaketa eta GJH-ak daudela ekarriko

dugu gogora. Taldea gaian kokatuta dagoela sentitzen dugunean talde txikietan lan egiteko nondik norakoak azalduko ditugu.

2. Fasea. Talde txiki bakoitzak GJH bat aukeratu beharko du, beraientzako helburu horrek ze beharri erantzuten dion azaldu eta ze irtenbide bururatzen zaien planteatzera gonbidatuko ditugu.
3. Fasea. Talde bakoitzak aurkezpen bat egingo du ikaskide guztien aurrean eta debaterako zein argudioak osatzeko tarteak irekiko ditugu bitartean.

Itxiera moduan, dugun testuinguruaren aurrean antolatu beharra dugula azpimarratuko dugu. Era berean, ibilbide hau gozagarria izan daitekeela komunikatuko dugu, eta batez ere denak aterako garela garaile.

5. GJH: GENERO BERDINTASUNA. EKONOMIA FEMINISTA TRESNA GISA

Feminismoak, jendarte antolaketa bidezko baten eraikuntzarako egiten du lan. Emakume zein neskatok ahalduzko egitura aproposak bilatzen ditu. Patriarkatua deritzogun balio multzo eta jendarte antolaketak hierarkia bat ezartzen du emakume, gizon, femenino eta maskulinoaren artean, emakume eta femeninoztat jotzen denaren kaltetan. Baina menderatze-sistema hau, patriarkatua, beste zapalkuntza ardatz batzuekin konbinatzen da, hala nola klasea, aniztasun funtzionala, arraza edo adinarekin. Honegatik, feminismoak trataera bidezkoa jasotzen ez duten subjektu guztiak hartzen ditu kontutan bere irakurketa eta proposamenetan. Oro har, Bizitza guztientzat bizigarri egitea bilatzen du aurkeztera gatozen Ekonomia Feministak.

Tamalez, gaizki ulertu eta aurreiritzi asko errepikatzen dira feministon eta gure proposamenen inguruan. Hauetako bi aipatuko ditugu: alde batetik, feminismoa matxismoaren ispilu femeninoztat jotzea gaizki ulertu oso larria da, emakumeok gizonez mendekatzeko botere guñeak konkistatzea bilatzen dugula dion aurreiritzia hain zuzen. Bigarren errorea, feminismoa bikote harremanen baitan ematen den indarkeria matxista salatzea helburu bakartzat duen mugimendutzat jotzea da. Izan ere, feminismoak indarkeria matxista salatzen badu ere, eta botere guñeetara heltzeko aukera berdintasuna aldarrikatzen badu ere, ez da horretara mugatzen.

Feminismoaren oinarrien nondik norakoak azalduz, atal honen izenburuaren bigarren hitzari erreparatuko diogu orain: Ekonomia. Hitz honen jatorrizko adiera hartuko dugu abiapuntutzat: *Oikonomia*, hots, etxeari dagokion guztiaren kudeaketa. Ekonomia, Bizitzako beharrei erantzuteko antolaketa modua da. Bizitza zaintzeko eta hau ber sortu ahal izateko.

Gaur egungo antolaketa ekonomiko hegemonikoa kapitalismo neoliberala da. Ekonomiaren ardatzak Bizitza zaintzea eta hau ber sortzea izan beharrean, diru metaketa eta jabetza pribatuaren defentsa dira. Sistema honek bizirik dagoena ustiatzeko beharra du aurrera egin ahal izateko. Bizitza beraz, kapitalaren eta produktibitatearen logiken menpe dago.

Testuinguru honetan, langile produktiboak sostengatu ahal izateko egin beharreko zaintza lanei (babez afektiboa, higiena, elikadura) ez zaie baliorik aitortzen. Sexuaren araberako lanaren banaketari esker, nagusiki emakumeok burutzen ditugu ahalegin hauek. Eta balio aitortzaz gozatzen ez duten eginkizunak diren heinean, emakumeon artean ere existitzen den estratifikazioan, negatiboki arrazializatutakoak eta klase baxukoak dira lanbide hauen protagonistak.

Bestalde, eta hau da Ekonomia Feministaren ekarpen handietako bat, Bizitzaren sostengua ez dago soilik pertsonon esku. Natura deritzogunak bizirauteko behar beharrezkoak ditugun prozesu asko

lantzen ditu: zuhaitzek oxigenoa ekoizten dute eta zizareek lurra ontzen dute, adibidez. Kapitalismoak behar duen hazkunde etengabea asetzeko, jendartearen (eta enpresa pribatuen) zerbitzura dagoen baliabideetat jo dugu natura. Honela, ondasun komun diren itsaso, erreka zein basoek, batzuk aipatzearen, neurrigabeko ustiapenak jasaten ari dira; eta honek kinka larrian kokatzen du Bizitzaren iraupena bere horretan.

Beraz, alde anitzeko krisi batean gaudela ikustarazten digu Ekonomia Feministak. Are gehiago, krisi hau gure jendartearen antolaketaren bizkarrezurra den kapitalismo neoliberalak eragiten duela dio. Emakumeok aurre egiten diogun zapalkuntzak abiapuntu harturik (soldata arrakala, sexu erasoak, edo mikro-matxismo deiturikoak, batzuk aipatzearen), emakumeontzat Bizitza duina eraikitze bidean ez dugu zalantzarik eduki emakumeon Bizitza ardatz anitzek zeharkatzen dutela. Eta hauei erreparatu gabe ez dela posible izango berdintasuna erdiestea.

Erronka polita dugu beraz, gure parean. Mezu distopikoez beteriko egungo testuinguruan utopia ez bakarrik irudikatu baizik eta eraikitzea da proposamena.

Dinamikaren izena: Ni, neure gustuko

- **Helburua:** Autoestimua lantzea, gaitasunak hedatu ahal izateko.
- **Iraupena:** 20 min.
- **Pertsona kopurua:** banaka egiteko ariketa.
- **Bitarteko materialak:** paperak eta bolalumak.

Metodologia:

Abiatuko dugun lanketa ikasleen bizitzarekin zuzenean erlazionatuta dago. Eta horregatik, mendi txango batera abiatu baina lehen motxilan ura eta janaria sartzen ditugun moduan, egiten ari garen lanketa lodi hau laboratzeko norbera indartsu sentitzea beharrezkoa da. Horregatik, auto-opari zenbait egingo dizkio norberak bere buruari.

Agendan, paper batean ala koaderno batean beraien buruaz gustatzen zaizkien 5-10 gauza idaztera gonbidatuko ditugu. Gaitasun fisikoak, emozionalak, intelektualak, artistikoak edo erlazionalak izan daitezke, iraganean egindako eta harro sentiarazten dien zerbait edo ezaugarri fisiko bat; beraien buruaz maite duten edozerk balio du.

Idatzi ostean talde handian partekatzera gonbidatuko ditugu. Inork ez badu partekatu nahi errespetatuko dugu.

Tanketa honetako ariketak nerabeekin maiz egitea oso garrantzitsua da segurtasun falta eta auto gorroto askoko garaia izaten delako. Dinamikaren azken mezua hurrengo izan daiteke: maitasunak eta tratu onak norabide anitz hartzen ditu bizitzan (beste pertsonak gu, guk natura, animaliek gu, guk beste pertsonak, etb). Norabide hauen artean koka dezagun gurekin bizitza guztian zehar egongo den hori, gu geu, geure aliatu ederrena izan gaitezen.

Dinamikaren izena: Zer da ekonomia? Ze behar ditugu bizitzan?

- **Helburuak:** Egungo ekonomia ereduaren inguruan hausnartu.
- **Iraupena:** 60 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, arbela eta klarionak

Metodologia:

Lehenik eta behin arbela bitan banatuko dugu, eremu bakoitzean lanketa ezberdin bat islatzen joango garelako. Lehen atalean ideia zaparra baten emaitzak jasotzen joanen gara. Fase honetan ez dago ekarpen egoki ala desegokirik.

Lehen ideia zaparradarako giltza galderak hurrengoak izango dira:

Zerekin erlazionatzen duzue ekonomia? Ze hitz datorkizue burura? Zein esaldi?

Diruarekin zerikusia izango duten terminoak izango dira nagusi.

Lanketaren bigarren fasera igarotzeko, ekonomiaren inguruko hurrengo definizioa planteatuko diegu: “Bizitzako beharrianak asetzeko jendarte antolaketa eredu da ekonomia”.

Bigarren ideia zaparrada bat abiatuko dugu orain eta arbelaren bigarren eremuan idazten joango gara ateratakoa. Hau izango da giltza galdera:

Guk, bizitzeko ze behar ditugu? (ura, arreta afektiboa, etxebizitza, bakea..)⁵

Azkenik, eta ondorio moduan, arbelaren eremu batean eta bestean ateratako ideiak alderatuko ditugu hurrengo galderari erantzunez:

Egungo ekonomia ereduak asetzen al ditu bizitzeko beharrianak? Behar hauetako zeintzuk daude zuzenean diruarekin erlazionatuta?

Ondorio bezala, ekonomia kapitalistaren ardatza beharrak asetzea beharrezko dirua pilatzea dela argudiatuko dugu. Ondorioz, behar asko ase gabe edo merkatutik at ase beharrezko gaudela adierazi

5. Bizitzeko beharren zerrenda hau hurrengo dinamika batzuetan lagungarria izango zaigu. Honegatik, hemen ateratzen diren kontzeptu guztiak nolabait gordetzea gomendatzen dugu.

eta azalduko dugu. Ekonomia Feministak zaintza duenez abiapuntu eta helmuga behar horietan jartzen du fokua. Hurrengo ariketetan ideia hauetan sakonduko dugunez hemen utziko dugu lehen hurbilpen hau.

Dinamikaren izena: **Beharrak zeinek eta nola asetzen ditu?**

- **Helburuak:** Ekonomia Feministara hurbilpena, jendarte antolaketaren oinarrizko akatsa mahaigaineratu eta lan ez ikusgarrien balioa aitortu.
- **Iraupena:** 30 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, arbela eta klarionak.

Metodologia:

Talde txikietan lan egingo dugu berriz ere. “*Zer da ekonomia?*” dinamikan bizi ahal izateko ditugun beharren zerrenda osatu zuten ikasleek. Oraingoan, talde bakoitzak beharrizan bat aukeratuko du eta beharrizan hori ase ahal izateko zenbat lan egin den zerrendatzera gonbidatuko ditugu. Adibidez:

“Arropa. Guk orain arropa garbia izan ahal izateko zer gertatu da? Atzera eginez lehen pausua arropa hau armairuan gordetzea izan da, aurretik garbitua hedatua eta tolestua izan da. Aurretik norbaitek erosi zuen. Aurretik garraiatua izan zen. Aurretik sortua izan zen eta horretarako ondasun naturalak erabili ziren.”

Prozesu guztian zehar ze pertsona eta baliabide egon den eta ze lan baldintza izan dituen hausnartzera gonbidatuko ditugu. Hurrengo galderak lagungarriak izan daitezke:

Emakumeak izan dira lan hori egin dutenak ala gizonak? Positiboki arrazializatutakoak ala negatiboki arrazializatutakoak? Gizakiena ez den lanik egon da? Soldatarik izan dute fase bakoitzeko langileek? Soldata lan hori ordaintzeko baliagarria al da? Animalia ez gizatiarrek (erleek adibidez) edo natura deritzogunak (zuhaitzek adibidez) egindako lana diruz ordaintzeak zentzua dauka? Eta lan hori gabe biziraun dezakegu?

Talde txikietan egindako lana partekatzerako orduan, lagungarria izan daiteke arbelean izotz mendi bat marraztea. Ur gainean dagoen zatia, ikusgarria eta txikia da. Ur azpian dagoena berriz, ezkutuan

dago guretzako, izugarri handia da eta goiko aldean sostengatzen du. Izotz mendia metafora bezala erabili ohi dugu Ekonomia Feministan. Aitortza duten lanak izotz mendiaren goiko aldean kokatzen joan gaitezke eta beheko aldean goikoak eman ahal izateko beharrezkoak diren beste lan guztiak.

Talde bakoitzak bere lan prozesuen aurkezpena egiten duen bitartean aitortu gabeko ahaleginak izotz mendiaren beheko aldean kokatzen joango gara eta besteak goian. Ondorioa bezala esan dezakegu krisien oinarrietako bat dela, beharrezkoak diren ahalegin eta prozesuak ez direla zaintzen jendarte antolaketa eredu honetan.

Dinamikaren izena: Lan banaketak

- **Helburuak:** Bizitzeko beharrezkoak diren lanen ikusgarritasun eta aitortza ikasleen egunerokotasunean zein den hausnartu.
- **Iraupena:** 30 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa.
- **Bitarteko materiala:** “Lan banaketaren fitxa”, bolalumak.

Metodologia:

Aurretik landutakoaren segida da dinamika hau. Kasu honetan beraien inguru hurbilean lanen banaketa eta aitortza nolakoa den aztertuko dugu. Garrantzitsua da hasieratik argi uztea balio sistema eta antolaketa eredu bidegabe baten bizi garela eta ondorioz ohikoena dela logika horren baitakoak izatea gure jarduteko moduak. Beraz, epairik gabe, ber sortzen ditugun lan ez ikusgarrietara bidaiatzea proposatuko diegu. Bakarka, hurrengo “lan banaketaren fitxa” betetzera gonbidatuko ditugu:

| LANA | NORK EGITEN DU? |
|--|-----------------|
| Etxetik kanpo lan egin | |
| Etxeko garbiketak (komuna, sukaldea...) | |
| Polinizazioa | |
| Janariak prestatu | |
| Arropa garbitu/hedatu/josi/plantxatu | |
| Zuei etxeko-lanetan lagundu | |
| Etxeko animaliez arduratu (txakurra/katua...) | |

| | |
|--|--|
| Arnasten dugun airearen garbiketa | |
| Aiton-amonen zaintza (erosketak egin,...) | |
| Haur txikien zaintza (pardelak aldatu, bainatu...) | |
| Guk edateko ura izatea | |
| Erosketak egin (janaria, arropa,...) | |

Erantzunak talde handian partekatu ostean galdera hauei erantzunak topatzea proposatzen dugu:

Zergatik uste duzue horrela dela? Beste modu batean izateko aukerarik ba al dago? Zein dira zuk dituzun ardurak zaintza esparruan? Betetzen dituzu?

Ondorio moduan, lan ez ikusgarri gehienak emakumeon, animalia ez gizatiarren eta ondasun naturalen esku daudela aipatuko dugu. Lan eta prozesu hauek aitortzarik ez izateaz gain, maiz mehatxatuak eta suntsituak izaten dira. Aurreko saioetan landutakoak ere ekarriko ditugu gurera: hainbat arlo barnebiltzen dituen krisi batean gaude eta honen oinarria da bizitzeko beharrezko prozesuak ez direla babesten. Amaieran beti, itxaropen argi bat utziko dugu, aldaketa gure esku dagoela azpimarratuz.

8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKO JASANGARRIA. KOOPERATIBISMOA TRESNA GISA

Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen (ESE) kontzeptuak esperientzia praktikoa ugari biltzen ditu. Batzuk sistema ekonomiko kapitalistak sortzen dituen ezberdinkeria-arazo larriei erantzun bezala sortu dira. Horietako askok, berehalako beharrei erantzutearekin batera, eredu ekonomiko ezberdin bat eraiki gura dute.

Jarraitu baino lehen beharrezkoa da argipen kontzeptual bat egitea, terminologiarekin nahastu ez gaitzen.

- [Ekonomia Soziala](#): Pertsona eta ez kapitala erdigunean jartzen duen ekonomia eredu. Dela erabakimenean eta jarduera ekonomikoaren helburuan. Estatu espainiarrean lege propioa du eta hemen erakundetze forma ezberdinak sartzen dira: Irabazi asmorik gabeko entitateak, karitate entitateak, insertzio enpresak, mutualitateak, fundazioak eta kofradiak besteak beste. Baita kooperatibak ere.
- [Kooperatibagintza](#): Jatorri historiko propioa du baina pertsona erdigunean jartzen duenez, ekonomia sozialaren familia handian kokatua dago. XIX. mendean sortu zen eta Euskadin lege propioa du (2020).
- [Ekonomia Solidarioa](#): 68-ko mugimenduen ostean ekonomia kritikoago baten aldeko jarrera zabaldu zen. Autogestioaren aldekoa eta estatu-zentrismo eta kapitalismo fordistaren kontrakoa. Mugimendu honek ekonomia solidarioari egin zion bide, ekonomia sozialetik bereizi zena. Azken honi karitate hutsa egitea leporatuko zion eta eredu ekonomiko baten beharra jarri zuen mahai gainean.
- [Ekonomia Sozial Eraldatzailea](#): Euskal Herrian hezur-mamituriko kontzeptua da. Ekonomia solidarioaren borondate eraldatzailea eta baloreak eta kooperatibagintza tradizionalagoaren ondarea hartzen ditu baleko bezala. Hortik, egungo krisiei erantzuteko eredu ekonomiko baten lanketan murgilduko da: Kooperatibak artikulatuz eta lurralde ekosozialki bizigarrien aldeko lana eginez.

Iturri anitz hauek lantzea gehiegitxo izan daiteke. Hortaz, hurbilpen moduan kooperatibagintza lantzea hobesten dugu.

Kooperatibagintza

Kooperatibagintzak ekonomiaren erdigunean jartzen du pertsonen ongizatea. Honela baliabide ekonomikoak, aberastasuna, ekoizpena edota kontsumoa ongizate helburu hori lortzeko bitartekoak dira. Ez helburuak bere horretan. Kooperatibagintzaren sustraiak XIX. mendeko korrante ideologiko handietan daude: gizarte-kristauen tradizio sozialean edota langile-klasearen auto-antolaketa eta autogestio sozialistan. Azken honetan elkar-laguntza beharra oinarrizko bulkada izanik, izaera ekonomikoa zuten erakunde ezberdinak sortu ziren: kooperatibak, langile-elkartek eta mutualitate forma ezberdinak (aseguru, aurrezki eta kredituzkoak).

Hauek denak, bizitza elkarrekin sostengatzeko beharretik egin zuten bidea. Estatuak eta are gutxiago merkatuak ez baitzituen gutxienerako bizi-baldintzak asetzen. Ekite ekonomiko horretan, dimentsio soziokulturala ere asko landu zen, eta kooperatiba asko nortasun ikur ere bilakatu ziren.

Bide honetan esperientziak sistematizatzen joan ziren, printzipioak sortzen, arautzen eta XX. mendearen hasierarako ekonomia sozial honen oinarriak finkatu zirela esan daiteke. Ekonomia sozial “klasikotzat” hartu genezake hau, mundu gerlen aurreko garaiari lotua.

Horien artean kooperatibagintza dugu. Dakigunez behar eta gaitasun ekonomikoak modu horizontal eta demokratikoan kudeatzeko ereduak da hau. Dela ekoizpen gaitasuna dela kontsumo beharra, azken hau edozein delarik ere (janaritik, finantza edo etxebizitzara). Kooperatibagintza ofizialak aldarrikatzen dituen 7 printzipioen jatorria Rochdalen kokatzen dira (1844) eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa 1895 sortua zen.

Klase ezberdinetako kooperatibak daude, izan ere anitzak dira modu kolektiboan kudeatu daitezkeen eremuak. Euskal Herrian ezagunenak “lan-elkartuko kooperatibak” dira. Hauetan pertsonak lana kooperatibizatzen dute eta elkarrekin ekoiztu arau kooperatiboen barne merkaturako. Kasu honetan bazkide nagusia langilea da. European aldiz, bestelakoak dira kooperatiba ohikoenak. Kontsumoko asko daude adibidez, zeinetan kontsumitzaileek beren eroste ahalmena kooperatibizatzen duten, elkarrekin erosteko. Irunen bertan badugu Labore Txingudiren adibidea. Era beran, finantza kooperatiba oso handiak ere existitzen dira: Familia, enpresa edo entitate publikoen aurrezkiak biltzen dituzten egitura kooperatiboak. Luze jarrai genezake zerrendarekin: Etxebizitza kooperatibak, zerbitzu kooperatibak, irakaskuntzakoak... baina denetan logika berdina gailentzen da: bazkideen kooperazioa, horizontaltasuna eta demokrazia ekonomikoa.

Hortaz, kooperatibek modu demokratikoan eta berdintasunean lotzen dituzte pertsonak. Modu demokratikoan kudeatzen dira, “kide bat, boto bat” arauarekin. Gainera, kooperatibek parte-hartze forma ezberdinak ahalbidetzen dituzte: Langile, kontsumitzaile-erabiltzaile, kolaboratzaile bazkide

izan zaitezke. Bazkideak diren neurrian, bezeroak, langileak, erabiltzaileak edo egoiliarak izan daitezke kide, eta beraz denek izan dezakete bozka eskubidea. Kide guztiek boto eskubide berberak dituzte, enpresari ematen dioten kapitala edozein dela ere. Barne demokrazia onen marko nagusia “Batzar Orokorra” da, zeinetan bazkide denak biltzen diren erabaki estrategikoak hartzeko.

Balio zehatzetan oinarritutako enpresak dira, 7 zehazki (ariketan azalduak). Helburua ez da aberastasuna sortzea soilik. Hori dela eta, kooperatibek nazioartean adostutako printzipio batzuk partekatzen dituzte, eta elkarrekin jarduten dute lankidetzaren bidez mundu justuago bat eraikitzeko. Zuzentasunean, berdintasunean eta justizia sozialean oinarritzen dira. Balio horiei esker, mundu osoko kooperatibek aukera ematen diote jendeari elkarrekin lan egiteko, epe luzeko oparotasuna eta lanpostuak sortzen dituzten enpresa jasangarriak sortzeko.

Kooperatibei esker, pertsonak beren etorkizuneko ekonomien kontrola har dezakete. Enpresa akziodunena ez denez, beren jardueraren onura ekonomiko eta sozialak ezartzen diren komunitateetan geratzen dira. Irabaziak enpresan berrinbertitzen dira edo kideei itzultzen zaizkie.

Kooperatiba-mugimendua fenomeno marjinala izatetik urrun dago: Munduko populazioaren %12 planetako 3 milioi enpresa kooperatiboetako baten kooperatibista da.

Kooperatiba-mugimenduak kapitalismoaren jendarte-egitura zalantzan jartzen duten beste gizarte mugimendu batzuekin lotura eusteko konpromisoa du. Bere printzipioen arabera, kooperatibismoa ez da enpresa-eredu bat, ekonomia egiteko eredua bat baizik. Kooperazioa ekartzen duena erdigunera eta lehia bigarren plano batera eramaten. Horregatik, zuzenena enpresa-logika kapitalistaren aurkako gizarte mugimendua gisa ere uler dezakegu.

Dinamikaren izena: **Laranjaren irakaspenak**

- **Helburuak:** Kooperazioa lehia baina emankorragoa dela ikustaraztea.
- **Iraupena:** 15 min.
- **Pertsona kopurua:** Bi pertsona talde aurrean esperimientua egiteko.
- **Bitarteko materiala:** Laranja bat.

Metodologia:

Bi bolondres aterako ditugu klase aurrera esperimientu bat egiteko. Bakoitzari zerbait eskatuko diogula adieraziko dugu, eta ahal dutela egin behar dutela hori lortzeko. Honela, klasetik aterako ditugu bi ikaskideak. Beste gelakideei adieraziko diegu zer eskatuko diegun bolondres atera direnei.

Bateri beraz, laranjaren azala eskuratu behar duela esango diogu eta besteari laranjaren mamia. Baina bikotekideek ez dute jakingo zer eskatu diogun besteari.

Normalean, esperimientua hasten denean bi kideak lehiatzen hasten dira laranja osoa lehendabizi eskuratzeko. Eta erantzun hori ematen denean batek bakarrik lortzen du bere xedea.

Ondorio moduan adieraziko dugu kooperatu izan balute eta batak besteari esan zer behar zuten, adostasun batera heldu ahal izango zirela eta biak izango zirela irabazle.

Dinamikaren izena: **Kooperatibagintzaren printzipioak**

- **Helburuak:** Mugimendu kooperatiboaren zazpi printzipioak ulertu.
- **Iraupena:** Ordu t'erdi.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, “mugimendu kooperatiboaren zazpi printzipioak fitxa”, arbela, klarionak.

Metodologia:

Gomendagarria da baina ez nahitaezkoa, dinamika hau egin aurretik elkartasun balioak eta egungo ekonomiaren inguruko nondik norako batzuk landu izana. Era berean, kokapen teorikoko atalean

adierazitakoa ikasleei azaltzea ere komenigarria izan daiteke. Behin oinarriak ezarrita daudelarik, kooperatibagintzaren oinarrietan murgilduko gara.

Bikoteka kokatuko dira ikasleak. Pare bakoitzari printzipio bat esleituko diogu eta beraien lehen erronka printzipio hori ulertzea izango da. Hona hemen zazpi printzipioak:

Hauek dira nazioarteko mugimendu kooperatiboaren zazpi printzipioak:

- 1. Atxikimendu boluntarioa eta irekia:** kooperatibak, erakunde boluntarioak dira. Haien zerbitzuak erabiltzeko eta bazkide izateko erantzukizuna onartzeko gai diren guztiei daude irekiak, generoaren, arrazaren, klase sozialaren, posizio politikoaren edo erlijioaren arabera bazterketarik gabe.
- 2. Bazkideen kontrol demokratikoa:** kooperatibak bazkideek demokratikoki kudeatutako erakundeak dira eta haiek kooperatibaren politikak eta erabakiak ezartzen hartzen dute parte. Kooperatibak ordezkatzeko eta kudeatzeko aukeratutako gizon eta emakumeak dira bazkideen aurrean arduradunak. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide guztiek dute bozketarako eskubide berberak (bazkideko boto bakarra), eta beste mailakoak ere modu demokratikoan daude antolaturik.
- 3. Bazkideen parte hartze ekonomikoa:** bazkide guztiek diruzko ekarpena egin ohi diote kooperatibari. Diru horren zati bat gutxienez, kooperatibaren ondasun komuna izango da orokorrean. Bazkideek ordaina jaso ohi dute, bazkide izateko baldintza den emandako diruan oinarriturikoa. Bazkideek zehazten dituzte honako xedea betetzeko soberakinak: kooperatibaren garapena, erreserbak ezarri bidez, zati bat behintzat banatzerik ez dagoelarik; bazkideen irabaziak kooperatiban egindako eragiketen proportzioan; eta bazkideek onartutako beste jardueri laguntzea.
- 4. Autonomia eta independentzia:** kooperatibak, elkarri laguntzearen, erantzukizunaren, demokraziaren, berdintasunaren eta solidaritatearen baloreetan oinarritzen dira. Haien sortzaileen ohiturak jarraituz, kideek zintotasunaren, gardentasunaren, erantzukizun sozialaren eta besteenganako arduraren balio etikoetan sinesten dute.
- 5. Hezkuntza, formazioa eta informazioa:** kooperatibek hezkuntza eta formazioa eskaintzen diete bazkideei, aukeratutako ordezkari, zuzendari eta langileei kooperatiben garapenean modu eraginkorrean lan egin dezaten. Kooperazioaren izaera eta onurak zein diren aditzera ematen diote publikoari, gazteei eta iritzi-liderrei gehienbat.
- 6. Kooperatiben arteko elkarlana:** kooperatibek bazkideei ahalik eta modu efikazenean erantzuten diete eta mugimendu kooperatiboa indartzen dute tokiko, nazio, eskualdeetako eta nazio arteko egituren bitartez elkarrekin lan eginez.
- 7. Komunitatearekiko interesa:** kooperatibek haien komunitateen garapen iraugarria lortzeko egiten dute lan, haietako bazkideek onartutako politiken bitartez.

Behin bikote bakoitzak printzipio baten inguruan lan egin duelarik, beraien hitzekin hau talde osoaren aurrean azalduko du. Honela, bikote bakoitza printzipio bat azaltzen joango da eta talde handian komentatuko dugu ea ulertu den ala zalantzarik dagoen. Bitartean, printzipio guztien izenburuak eta ideia nagusiak arbelean idatziko ditugu.

Talde txikietan kokatuko dira ikasleak eta printzipio horiei jarraiki erronka bat antolatu beharko dute. Erronka hori urtebetetze festa bat antolatzea izan daiteke, ikas bidai bat ala aproposa iruditzen bazaie, eskubide baten aldarrikapena.

Nola antolatuko dute aukeratu duten hori printzipio kooperatiboetan oinarrituz?

Amaitzeko, talde bakoitzak bere ekimenaren berri emango dio talde osoari eta printzipio kooperatiboaren bertuteak azpimarratuz itxiko dugu saioa.

Dinamikaren izena: Enplegu utopikoa

- **Helburuak:** Etorkizun hobe bat irudikatzea eta printzipio kooperatiboak barneratzen jarraitzea.
- **Iraupena:** 30 min.
- **Pertsona kopurua:** Bakarkako lana.
- **Bitarteko materiala:** Ikasleek Ekonomia Feministako saioan osatutako bizitzeko beharren zerrenda.

Metodologia:

Etorkizun hobe bat eraikitzeko bidean lehen urratsa hau irudikatzea da. Hau ezinbesteko lana izateaz gain, gustagarria ere bada eta ikasleek han-hemenka jasaten dituzten mezu distopikoekiko kontrapisua izango da. Ariketa hau Ekonomia Feministaren eta kooperatibagintzaren oinarriak landu ostean jorratzea da aproposena. Arestian aztertu genituen bizitzeko ditugun beharrak, eta oraingoan behar hauek enpleguarekin uztatuko ditugu.

Bakarka, beraien burua etorkizunean zein enplegutuan ikusten duten ahalik eta zehatzenen irudikatzerara gonbidatuko ditugu eta horretarako hurrengo galderak helaraziko dizkiegu:

- Zein eremutan gustatuko litzaizuke lan egitea? Zer sortuko zenuke zuen lan orduetan?
- Enplegu publikoan ikusten duzu zure burua? Enpresa pribatu batean?
- Nagusi bat edukitzea nahi duzu ala zure kabuz lan egitea?

- Lankideak izan nahi dituzu? Baiezkoa bada, zein harreman irudikatzen duzu lankideekin?
- Egunean zenbat orduz egin nahi duzu lan? Zenbat opor izan nahi dituzu? Noiz hasi nahi duzu enpleguan eta noiz arte? Zenbat diru irabazi nahi duzu hilabetean?

Ostean, eta berriro ere bakarka, enplegu ideal horiek bizi ahal izateko beharren maparekin alderatuko dituzte: Enplegu horrek mapako zein behar asetzen ditu? Uste duzu beste enplegu eredu batekin behar horiek asetzeko aukera izango zenukeenik?

Ondorio moduan adieraziko dugu gure enpleguak aukeratu edo sortzerako unean bizi ahal izateko behar guztiak aintzat hartu behar ditugula. Eta hauen artean dirua egon arren, beste behar asko ere baditugula.

12. GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA. AGROEKOLOGIA TRESNA GISA

Agroekologia nekazal, abeltzain zein baso ustiapenen ekoizpenerako prozesu ekologikoak aplikatzen dituen planteamendua da. Oinarrian balio ekologiko eta sozialak uztartzen ditu eta landareen, animalia ez gizatiarren, pertsonen eta ingurumenaren arteko elkarrekintza optimizatzen saiatzen da. Aldi berean, sozialki bidezkoak diren elikadura-sistemen beharrei heltzen dio, pertsonak zer jaten duten, nola eta non ekoizten den aukeratu ahal izateko. Dieta osasungarrien kostuan eta eskuragarritasunean oinarritzen den elikadura-segurtasunean ere arreta jartzen du, pertsona batek elikadura ona bermatzeko eta desnutrizioa saihesteko elikagaiak erosteko duen ahalmenean.

Jendarte eraldaketarako tresna gisa definitzen du “La Via Campesina⁶”-k agroekologia, nekazaritza jasangarria aldarrikatzen duen mundu mailako sareak. Herriek elikagaien ekoizpenerako, banaketarako eta kontsumorako dituzten politika eta estrategia iraunkorrak definitzeko duten eskubidea defendatzen da, ekoizpen txiki eta ertainean oinarrituta, eta ez makro-ustiapenean. Konfiantza eta lankidetzaren berreskuratu eta sustatzen dira komunitateetan eta komunitateen artean, handiak zein txikiak izan, landa-inguruneak zein hirikoak. Agroekologiak balio aldaketa dakar: norbanakoikeria albo batera utzi eta lankidetzan pentsatzea, jendarte-harremanetan berdintasuna defendatzea eta komunitate-zentzua berreskuratzea.

Lurrarekiko, ondasun kolektiboekiko, naturarekiko eta bizimodu guztiekiko kontzientzia, maitasuna eta errespetua daude oinarrian. Baserritarrek behaketan, sormenean eta etengabeko prestakuntzan oinarritutako berrikuntza bultzatzen dute unean uneko erronkei aurre egiteko. Agroekologiak baserritarren ezagutzak babestu, partekatu eta praktikan jartzen ditu, testuinguru eta errealitate zehatz batean. Jakintza belaunaldiz belaunaldi eta baserritarrez baserritar igarotzeak duen garrantzia azpimarragarria da. Baserritarren eskubideak defendatzea funtsezkoa da, adibidez haziak, lurra, ura eta bestelako ondasun kolektiboetarako sarbidea. Baserritarrek eta komunitateek bata bestea onartu behar dute, eta baserritarren lanak duintasuna berreskuratu.

Agroekologiak boterearen deszentralizazioa bultzatzen du, baserritarrek beren autonomia berreskuratu dezaten. Eredu agroekologikoak beste eskualde eta komunitateetako tokiko nekazaritza errespetatzen du; solidarioa da eta konpromisoa hartua du mundu osoko eskualdeekin eta baserritarrekin.

6 <https://viacampesina.org/es/>

Agroekologiak bioaniztasuna sustatzen du sistema natural, sozial eta kultural desberdinen arteko armonia eta sinergia bezala. Tokiko aniztasunean oinarritzen diren eta beraien arteko lotura duten nekazaritzako ekosistemak hartu, garatu eta babesten ditu. Zentzu honetan, nekazaritza kudeatzeko eta nekazaritzako elikagaiak ekoizteko sistema ekologikoa erabiltzen du, sintesizko produktu kimikoak baztertzen dituen teknika multzoetan oinarrituta. Ingurumena babestea, lurzorua emankortasuna mantendu edo handitzea, ezaugarri naturalak gordetzen dituzten elikagaiak ematea eta animalia-ongizateari buruzko arau zorrotzen aplikazioa ekoizpen mota honetako helburuak.

Kontsumitzen diren mahaitik ahalik eta hurbilen ekoizten dira elikagaiak eta ondorioz aztarna ekologiko txikiagoa uzten dute. Honela gainera, tokiko ekonomiaren alde egiten dute. Banaketa sistema motzak produktu freskoen edo sasoiko produktuen zuzeneko salmentan oinarritzen dira, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko bitartekorik gabe edo bitartekaritza ahalik eta gehien murriztuz. Banaketa sistema motzek nekazariak kontsumitzailearengana hurbiltzen dituzte, giza harremana sustatzen dute, eta haien produktuek, distantzia luzeetara garraiatzen ez direnez eta ontziratzen ez direnez, ingurumen-inpaktu txikiagoa sortzen dute. Are gehiago, agroekologiak planeta hozten laguntzen du, eta horrela klima-aldaketaren ondorioak balaztatu.

Dinamikaren izena: **Kontsumo jasangarria. Zer da?**

- **Helburuak:** Kontsumo jasangarria zer den ulertzea.
- **Iraupena:** Ordubete.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, hiztegiak, arbela, klarionak, Ekonomia Feministako saioan landutako bizitzeko beharren zerrenda, “kontsumo jasangarriaren fitxa”, ordenagailuak eta sarerako sarbidea.

Metodologia:

Kontsumo arduratsua kontzeptuaren gainean ideia zaparrada bat abiatuko dugu. Klaseko giroak ahalbidetzen badu, ikasle bat atera daiteke arbelera ideiak idazten joateko, irakaslearekin batera. Bertan ateratako hitzekin kontsumo arduratsuaren gaineko definizio bat osatuko dugu.

Ostean, talde txikietan kokatuko gara eta Ekonomia Feministako saioan landu genituen beharren zerrendak aterako dituzte. Hauetatik, talde bakoitzak gai bat aukeratuko du (ura, elektrizitatea, elikagaiak..). Gai hori nun eta nola sortua izan den eta gugana iritsi arte zein ibilbide egin duen aztertzeraz gonbidatuko ditugu ikasleak. Horretarako, ikerketa bat abiatu beharko dute sarean. Ikerketan zehar arreta hiru eremutan jartzeko eskatuko diegu. Horretarako hurrengo galderak erabiltzen ahal dituzte eta emaitzekin “kontsumo jasangarriaren fitxa”-ko taula bete:

Kontsumo jasangarria

Ingurumena: Ekoizpena era ekologikoan eman al da? Garraioan zenbat energia inbertitu da? Erabilitako material guztiak beharrezkoak al ziren ala soberako plastikoa zuen, adibidez? Erabilitako materiala biodegradagarria da ala ez?


Gizartea: Gai hori sortu izanak ekarpenik egiten al dio gizarteari? Denei? Sektore pobretuei ala pribilegiatuei? Desberdinkeriarik eragiten al du gai hori sortu izanak?

Ekonomia: Gaia ekoiztu den herrialdea eta kontsumitu dena, berdinak dira? Hurbil daude ala urrun? Ekonomia zirkuituan inplikaturik egon diren pertsonak, lan baldintza duinak izan dituzte?

Lortutako erantzunen arabera 0-tik 5-era baloratu aukeratutako gaia, eremu bakoitzean:

| Ingurumena | Gizartea | Ekonomia |
|------------|----------|----------|
| | | |

Talde bakoitzak bere gaia aztertu ostean ondorioen aurkezpenak egingo ditugu. Prozesuan zehar ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren artean oreka egon bada garapen jasagarriaz eta beraz kontsumo arduratsuz hitz egin dezakegula aipatuko dugu amaieran.



Dinamikaren izena: **Ekoizpen ereduan oinarritutako kontsumo eredua**

- **Helburuak:** Eredu agroekologikora hurbiltzea eta haren balioak indartzea.
- **Iraupena:** 20 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, ordenagailu bat, proiektorea, bozgorailua, “Veterinarios sin Fronteras” GKE -en “Dos tomates y dos destinos” bideoa⁷, “agroekologia eta agroindustria fitxa”, arbela eta klarionak

Metodologia:

Bakarka, bideoa ikusi bitartean “agroekologia eta agroindustria fitxa”-ko taulan eskatutako informazioa betetzen joango dira ikasleak eta ostean talde handian erantzunak elkarbanatuko dituzte.

7. <https://www.youtube.com/watch?v=OLWE3aiJ2FI>

Ezaugarri fisikoak

Zein ezaugarri ditu?
(ikusmena, usaimena, gustua, ukimena)

Zenbat denbora (adina) du?

Jatorria

Non sortu eta hazi da?

Zein da bere jatorria/ “gurasoak”?

Zein izango dira bere
ondorengoak/“seme-alabak”?

Elikadura

Zer behar du hazteko?

Nork/zerk elikatzen du?

Harremanak-Ingurunea

Zer dago bere inguruan?

Zeinekin/zerekin du harremana?
Zeinek hazten du?

Ibilbidea-Etorkizuna

Zein ibilbide egiten du edo egingo du
tomate bakoitzak?

Non salduko da tomatea?

Zertan bilakatu daiteke?

Etekin ekonomikoak

Zeinek irabaziko du dirua tomatearen
salmentarekin?

Ondorio bezala, eredu agroekologikoaren onurak azpimarratuko ditugu. Horretarako, teoriaren atalean adierazitako puntuak erabil ditzakegu.

Dinamikaren izena: Elkarrekin erosi

- **Helburua:** Kontsumo taldeen kontzeptura hurbilpen bat egitea.
- **Iraupena:** 30 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, hiztegiak, arbela eta klarionak.

Metodologia:

Taldean kontsumitzea kontsumo talde bat sortzeko hazia izan daiteke. Ikasleek ziur aski inguruan horrelako esperientziak izango dituzte (“herritik olio edo ardo enkargua ekartzen dute gurasoek jende pilo batentzako”, “amona familia guztian galdezka ibiltzen da laranjak nahi ote ditugun Valentziatik zuzenean ekartzen dituen norbaiti eskatzen dizkiolako”,...). Esperientzia horietatik abiatuko dugu jarduera hau. Talde txikietan jarriko dira ikasleak eta hurrengo galderari erantzuna emango diete bertan:

Taldean erosten duen pertsonarik edo adibiderik ezagutzen duzu? Zerbait erosteko elkartzen den jendea edo talderen bat ezagutzen duzu? Zerk erakartzen du jendea produktua ekoiztua izan den jatorrian bertan, bitartekaririk gabe erostera? Eta taldean erostera?

Talde txikietan galdera hauek partekatu ostean talde handian elkar-jartze bat egingo dugu. Bertan, elkarrekin erostearen abantailak azpimarratuko ditugu alde batetik, eta bestetik produktuak ekoiztuak izan diren eremuan erostearenak.

Dinamikaren izena: Kontsumo eta ekoizpen taldeak

- **Helburua:** Kontsumo eta ekoizpen taldeak ezagutu.
- **Iraupena:** 45 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta bikoteak.

- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, ordenagailu bat bikoteko, sarera sarbidea, “ekoizpen eta kontsumo bateratuaren fitxa”-ren taula.

Metodologia:

Aurreko dinamikan ikusi genuen elkarrekin kontsumitzeak hainbat bertute suposatzen dituela. Oraingoan, izaera juridiko baten pean eta pertsona kopuru handiago bat barneraturik, abian dauden esperientziatara hurbilduko gara. Bikoteka kokatuko dira ikasleak.

Batura proiektuaren mapa⁸ erabili dezakete ekimenak bilatzeko eta nahi izanez gero, aniztasuna bermatu ahal izateko, bikote bakoitzak sektore bat aukeratu dezake aldez aurretik: elikadura, etxebizitza, energia, finantza, zaintza, kultura, lana edo teknologia.

Sektorearen baitan proiektu interesgarri bat topatu ostean, aztertutako informazioarekin “ekoizpen eta kontsumo bateratua fitxa”-ko taula beteko dute:

| Ekoizpen eta kontsumo bateratua | |
|--|--|
| ARLOA | |
| IZENA | |
| TALDE MOTA | |
| HELBURUA | |
| JARDUERAK | |
| ONURAK | |

Talde bakoitzak ikertutako esperientziaren inguruko aurkezpen bat egingo du talde handian. Eta amaitzeko, ekoizpen eta kontsumo bateratuko esperientzia hauek oro har zein bertute dituzten komentatuko dugu denen artean.

8. <https://batura.eus/>

Dinamikaren izena: **Aukerak**

- **Helburuak:** kontsumitzaile gisa digun aukera eta ardurez jabetzea.
- **Iraupena:** 30 min.
- **Pertsona kopurua:** Talde osoa eta talde txikiak.
- **Bitarteko materiala:** Paperak, bolalumak, “kontsumo arduratsua sustatzeko fitxa”.

Metodologia:


Talde txikietan kokatuko dira ikasleak eta “kontsumo arduratsua sustatzeko fitxa”-ko taula beteko dute. Maila ezberdinetan kontsumo arduratsua landuko dute bertan. Alde batetik maila kolektiboan jarriko dugu arreta, jendarte bezala zein konpromiso har ditzakegun hausnartuko dute. Maila kolektiboarekin jarraiki, eskola edo familia bezala har ditzakegun ardurez eztabaidatuko dute eta azkenik, norbanako bezala dituen ohituretan jarriko dugu arreta.

| | |
|---|---|
| Zer egin DAITEKE jendartean, oro har kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DAITEKE jendartean, oro har modu arduratsuan? |
| | |
| Zer egin DEZAKEGU eskolan edo familian, kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DEZAKEGU eskolan edo familian, modu arduratsuan? |
| | |
| Zer egin DEZAKET nik kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DEZAKET nik modu arduratsuan? |
| | |

Amaitzeko, talde bakoitzak egindako lanaren aurkezpen bat egingo du eta ideia nagusiak arbelean jasoko ditugu.

AZKEN HITZA

Erronka potolo bati aurre egin beharko dio gure jendarteak hurrengo urte eta hamarkadetan, agerikoa da hori. Antolaketan aldaketa nabariak biziko ditugu, nahi ala ez, dimentsio anitz dituen zibilizazio krisi batean gaudelako guztiz murgildurik. Honegatik da hainen garrantzitsua balio eta praktikak eraldatzeko lan egitea, guk geuk iragatea ahalik eta samurren bizi ahal izateko eta hurrengo belaunaldientzako mundu bizigarri bat utzi ahal izateko oinordekotzan.



- Rochdale-en irakurgaia:

ROCHDALE

Muturreko pobrezia eta jendarte-injustiziaren testuinguruan, 1844an eratu zen Rochdale-n (Ingalaterrako iparraldeko herri txiki bat), gaur egun kooperatibismo modernoaren amatzat hartzen den kontsumo-kooperatiba. 27 gizonek eta emakume batek libra bat aurreztu zuten urtebetean kooperatiba sortzeko.

XIX. mendeko 40ko hamarkada gosearen hamarkada deitu zen Rochdalen. Herritarrak gosez hiltzen ziren bitartean, lantegietan hamahiru orduko lanaldia lortzeko borrokatzen zen. Enpresek irabaziak handitzen zituzten bitartean, mobilizazioek eta grebek ez zuten lortzen egoera horrekin bukatzea. Lanbaldintza tamalgarriez gain, enpresek langileak behartu egiten zituzten elikagaiak beren ekonomatoetan (dendetan) eroatera, elikagaien prezioa kontrolatuz eta muturreko pobreziaren egoera larriagotuz. Prezio gehiegikeria edota produktuak egoera txarrean egotea ohikoa zen.

Egoera hori arintzeko asmoz, Rochdaleko aitzindariak 28 libra bildu eta oinarritzko elikagaiak erosi zituzten, gero bidezko prezioan saltzeko. Lortutako etekina berrinbertitu egiten zen kooperatibaren eta bazkideen beharrak asetzeko.

Kooperatiba bezala eratu zirenean, balio batzuk ezarri zituzten: elkarrekiko laguntza, auto-erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna.

Eta balio horien babesean sortu ziren kooperatiben printzipioak: sarrera librea eta borondatezkoa, kudeaketa demokratikoa, parte-hartze ekonomikoa, autonomia eta independentzia, hezkuntza, prestakuntza eta informazioa baita kooperatiben arteko lankidetzeta eta komunitatearekiko interesa.

Balore eta printzipio horiek kooperatiba-mugimenduak bere egin zituen, eta gaur egun munduko kooperatiba guztietan daude indarrean (edo, behintzat, hala behar luke).

- Rosa Parks-en irakurra:

ROSA PARKS

Rosa Louise McCauley Parks, Rosa Parks gisa ezaguna, emakume estatubatuar beltza eta aktibista bat izan zen. 1950 urtetik Eskubide Zibilen Mugimenduko kide izan zen.

1955ko abenduaren 1ean, 42 urte zituelarik egindako ekintzagatik ezaguna egin zen. Egun horretan bere etxera itzultzeko autobusa hartu zuen Estatu Batuetako Alabama estatuko Montgomery hirian.

Garai horretan autobus publikoak pertsonen arrazaren edo azal kolorearen baitan banaturik zeuden. Aurrean zuriak, atzean beltzak eta erdian txuri zein beltzak, baldin eta zurientzako tokia bermatuta bazegoen. Zurientzako tokia egon ezean, pertsona beltzek altxa eta zuriei utzi behar zieten tokia, legeak hala esaten zuelako. Autobusa bete zenean txoferrak Rosa eta beste hiru mutil beltzei autobusera igo zen mutil txuri bati tokia uzteko agindu zien. Hiru mutilek agindua bete zuten baina Rosak uko egin zion altxa eta tokia uzteari. Ekintza honengatik Rosa kartzelan sartu zuten eta isuna jarri zioten.

Erantzun gisa, Eskubide Zibilen Mugimenduaren buru bihurtuko zen Martin Luther King eta Rosaren lagun Johnnie Carr-ek autobusen aurkako boikot kanpaina hasi zuten. Montgomeryko populazio beltzak uko egin zion autobusetan ibiltzeari. Tokietara iristeko elkarren artean antolatu ziren eta oinez joateari ekin zioten. 382 egunez iraun zuen protesta honek herrialde guztiko pertsona askoren babesa jasotzeaz gain, afera Epaitegi Gorenera heldu eta espazio publikoetako segregazioa konstituzioaren aurkakoa zela ebatzi zuen.

Rosa Parksen ekintza hau Eskubide Zibilen Mugimenduaren eta populazioaren mobilizazioa hauspotu zituen txinparta gisa kontsideratzen da.

Iturria: wikipedia

- Ikasleen greba Erresuma Batuan irakurgaia:

IKASLEEN GREBA ERRESUMA BATUAN

Zigor fisikoen aurka eta ikastetxeko baldintza txarrak salatzeko Galeseko Lanelly herrian hasitako ikasleen grebak Erresuma Batu osoan zehar zabaldu ziren 1911ko irailean zehar.

Irailaren 14ean Eskoziako Dundee hirira greba mugimendua iritsi zen eta protesta jendetsuenari ekin zioten; milaka ikaslek greba hasi zuten zigor fisikoen aurka eta opor gehiago eskatzeko. Eskutan makilak eta harriak hartuta hirian zehar ibili ziren, irekita zeuden eskoletan piketeak antolatuz.

Hiri ezberdinetan ikasleak antolatu eta “zer eta nola” egin erabakitzeko komiteak eta piketeak osatu zituzten. Greba hauetan neska zein mutilek parte hartu zuten. Protes-tarako modu ezberdinak erabili zituzten tokian toki, baketsuak gehienak, manifesta-zioak, protesta oihu, lelo eta kantak, latak makilekin kolpatu, haiek jotzeko erabil-tzen zituzten larruzko uhalekin eskoletako ateak lotu. Londres hirian burdinazko ma-kilekin irten ziren protestan kalera edota Dublinen irakasleei aza ustelak jaurti ziz-kieten.

Iturria: Argia eta wikipedia

- IHS-aren irakurgaia:

IRUNGO HARRERA SAREA (IHS)

2018. urteko udan, Estatu frantsesera igaro nahian Irunen blokeaturik gelditu ziren migratzaile eta errefuxiatuei erantzun bat emateko osatu zen herritar sarea da. Aurrera ezin egiteak suposatzen zuen egoeraren aurrean pertsona horiek beharrezkoak zituzten oinarrizko baliabideak bilatu eta bermatzeko antolatu ziren. Atsedean hartzeko, mugikorrek kargatzeko, dutxatzeko edota indarrak hartzeko toki bat behar zuten.

Baliabide horiek bilatzearekin batera, bidegabekeria publikoki salatu du IHS-k prentsa-aurreko, idatzi, ekintza eta manifestazio ezberdinen bidez. Egun, erakundeek Irunen migratzaile eta errefuxiatuei harrera egiteko jarri dituzten baliabideak, herritarrek bideratu dituzten eskari, ekintza eta protesten ondorioz lortu dira.

Oraindik ere pertsona guztiek muga libreki gurutzatzeko aukera ez dutenez, IHSak lanean jarraitzen du, migratzeko eskubidea ukatzen zaien eta Iruna iristen diren pertsonen laguntzeko eta egoera bera salatzeko.

Garapen Jasangarrirako Helburuen zerrenda:

1. Pobreziaren mota guztiak desagertzea mundu osoan.
2. Gosea amaitzea, elikagai segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.
5. Genero-berdintasuna erdiestea.
6. Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. Guztiontzat energia irisgarria eta ez kutsagarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea.
8. Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta guztientzako lan duina sustatzea.
9. Industrian, berrikuntzan eta azpiegiturretan arreta jartzea.
10. Gizarteetan dauden desberdintasunak ezabatzea.
11. Hiri eta komunitate jasangarriak lortzea.
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua sustatzea.
13. Aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea.
15. Lehorretako ekosistemetak bizitzari buruzko planteamenduak abiatzea.
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak eraikitzea.
17. Helburuak lortzeko aliantzari buruzko garrantziaz jabetzea.

- Lan banaketaren fitxa:

| LANA | NORK EGITEN DU? |
|---|-----------------|
| Etxetik kanpo lan egin | |
| Etxeko garbiketak (komuna, sukaldea...) | |
| Polinizazioa | |
| Janariak prestatu | |
| Arropa garbitu/hedatu/josi/plantxatu | |
| Zuei etxeko-lanetan lagundu | |
| Etxeko animaliez arduratu (txakurra/katua...) | |
| Arnasten dugun airearen garbiketa | |
| Aiton-amonen zaintza (erosketak egin,...) | |
| Haur txikien zaintza (pardelak aldatu, bainatu...) | |
| Guk edateko ura izatea | |
| Erosketak egin (janaria, arropa,...) | |

- Mugimendu kooperatiboaren zazpi printzipioen fitxa:

Hauek dira nazioarteko mugimendu kooperatiboaren zazpi printzipioak:

1. **Atxikimendu boluntarioa eta irekia:** kooperatibak, erakunde boluntarioak dira. Haien zerbitzuak erabiltzeko eta bazkide izateko erantzukizuna onartzeko gai diren guztiei daude irekiak, generoaren, arrazaren, klase sozialaren, posizio politikoaren edo erlijioaren araberrako bazterketarik gabe.
2. **Bazkideen kontrol demokratikoa:** kooperatibak bazkideek demokratikoki kudeatutako erakundeak dira eta haien kooperatibaren politikak eta erabakiak ezartzen hartzen dute parte. Kooperatibak ordezkatzeko eta kudeatzeko aukeratutako gizon eta emakumeak dira bazkideen aurrean arduradunak. Lehen mailako kooperatibetan, bazkide guztiek dute bozketarako eskubide berberak (bazkideko boto bakarra), eta beste mailakoak ere modu demokratikoan daude antolaturik.
3. **Bazkideen parte hartze ekonomikoa:** bazkide guztiek diruzko ekarpena egin ohi diote kooperatibari. Diru horren zati bat gutxienez, kooperatibaren ondasun komuna izango da orokorrean. Bazkideek ordaina jaso ohi dute, bazkide izateko baldintza den emandako diruan oinarriturikoa. Bazkideek zehazten dituzte honako xedea betetzeko soberakinak: kooperatibaren garapena, erreserbak ezarri bidez, zati bat behintzat banatzerik ez dagoelarik; bazkideen irabaziak kooperatiban egindako eragiketen proportzioan; eta bazkideek onartutako beste jarduerari laguntzea.
4. **Autonomia eta independentzia:** kooperatibak, elkarri laguntzearen, erantzukizunaren, demokraziaren, berdintasunaren eta solidaritatearen baloreetan oinarritzen dira. Haien sortzaileen ohiturak jarraituz, kideek zintzotasunaren, gardentasunaren, erantzukizun sozialaren eta besteenganako arduraren balio etikoetan sinesten dute.
5. **Hezkuntza, formazioa eta informazioa:** kooperatibek hezkuntza eta formazioa eskaintzen diete bazkideei, aukeratutako ordezkariari, zuzendariari eta langileei kooperatibaren garapenean modu eraginkorrean lan egin dezaten. Kooperazioaren izaera eta onurak zein diren aditzera ematen diote publikoari, gazteei eta iritzi-liderrei gehienbat.
6. **Kooperatibaren arteko elkarlana:** kooperatibek bazkideei ahalik eta modu efikazenean erantzuten diete eta mugimendu kooperatiboa indartzen dute tokiko, nazioko, eskualdeetako eta nazio arteko egituren bitartez elkarrekin lan eginez.
7. **Komunitatearekiko interesa:** kooperatibek haien komunitateen garapen iraugarria lortzeko egiten dute lan, haietako bazkideek onartutako politiken bitartez.

- Kontsumo jasangarriaren fitxa:

Ingurumena: Ekoizpena era ekologikoan eman al da? Garraioan zenbat energia inbertitu da? Erabilitako material guztiak beharrezkoak al ziren ala soberako plastikoa zuen, adibidez? Erabilitako materiala biodegradagarria da ala ez?

Gizartea: Gai hori sortu izanak ekarpenik egiten al dio gizarteari? Denei? Sektore pobretuei ala pribilegiatuei? Desberdinkeriarik eragiten al du gai hori sortu izanak?

Ekonomia: Gaia ekoiztu den herrialdea eta kontsumitu dena, berdinak dira? Hurbil daude ala urrun? Ekonomia zirkuituan inplikaturik egon diren pertsonen, lan baldintza duinak izan dituzte? Lortutako erantzunak hiru zutabeen baitan antolatu:

| Ingurumena | Gizartea | Ekonomia |
|------------|----------|----------|
| | | |

- Agroekologia eta agroindustria fitxa:

| | Eredu agroekologikoa | Eredu agroindustriala |
|---|----------------------|-----------------------|
| Ezaugarri fisikoak | | |
| Zein ezaugarri ditu? (ikusmena, usaimena, gustua, ukimena) | | |
| Zenbat denbora (adina) du? | | |
| Jatorria | | |
| Non sortu eta hazi da? | | |
| Zein da bere jatorria/ “gurasoak”? | | |
| Zein izango dira bere ondorengoak/“seme-alabak”? | | |
| Elikadura | | |
| Zer behar du hazteko? | | |
| Nork/zerk elikatzen du? | | |
| Harremanak-Ingurunea | | |
| Zer dago bere inguruan? | | |
| Zeinekin/zerekin du harremana? Zeinek hazten du? | | |
| Ibilbidea-Etorkizuna | | |
| Zein ibilbide egiten du edo egingo du tomate bakoitzak? | | |
| Non salduko da tomatea? | | |
| Zertan bilakatu daiteke? | | |
| Etekin ekonomikoak | | |
| Zeinek irabaziko du dirua tomatearen salmentarekin? | | |

- Ekoizpen eta kontsumo bateratuaren fitxa:

| Ekoizpen eta kontsumo bateratua | |
|--|--|
| ARLOA | |
| IZENA | |
| TALDE MOTA | |
| HELBURUA | |
| JARDUERA | |
| ONURAK | |

- Kontsumo arduratsua sustatzeko fitxa:

| | |
|---|---|
| Zer egin DAITEKE jendartean, oro har kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DAITEKE jendartean, oro har modu arduratsuan? |
| | |
| Zer egin DEZAKEGU eskolan edo familian, kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DEZAKEGU eskolan edo familian, modu arduratsuan? |
| | |
| Zer egin DEZAKET nik kontsumo arduratsua sustatzeko? | Zer kontsumitu-erabili DEZAKET nik modu arduratsuan? |
| | |

BIBLIOGRAFIA

- People, John. “ALFA, cooperativa obrera. De fabricar armas, a máquinas de coser”. *Historia del movimiento obrero*. 2018. <https://historiadelmovimientoobrero.blogspot.com/2018/08/alfa-cooperativa-obrera-de-fabricar.html>
- Vilnitzky, Mariana. “Los pioneros del cooperativismo”. *Alternativas económicas*. 2013. <https://alternativaseconomicas.coop/articulo/analisis/los-pioneros-del-cooperativismo>
- Eizagirre, Iker. “Kooperatibismo garaikidearen hastapenak”. *BDS Koop*. <https://www.bdskoop.eu/2022/05/24/kooperatibismo-garaikidearen-hastapenak/>
- Eizagirre, Iker. “Kooperazio sozialista”. *BDSKoop*. <https://www.bdskoop.eu/2022/07/02/kooperazio-sozialista-i/>
- La Via Campesina. “Agroekologiaren 2. liburuxka”. *ElikaHerria*. 2015. https://issuu.com/elikaherriaelikaduraburujabetza/docs/02-cast-agroekologia?utm_medium=referral&utm_source=www.elikaherria.eu
- Nafarroako produkzio ekologikoaren kontseilua. “Zer dira abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa?” *CPAEN*. <https://www.cpaen.org/eu/ekoizpen-ekologikoa/zer-da-ekoizpen-ekologikoa>
- Perez de Orozko, Amaia. “Bizitako krisialdiaren prozesua eta ondorioak”. *XXK Feminismos, pensamiento, accion*. 2019. <https://colectivaxxk.net/eu/argitalpenak/>
- Ara!Gorputz eta MunduBat. Euskal Herriko Ekonomia Feminista eskolak, apunte metodologikoak eta modulo teorikoak, 2021.
- I. Dominguez, Enara eta Martín, Belén. *Desmontando al Homo Economicus. Postales desde Isla Ternura*. Baladre eta Zambra, 2020.

